

Jarduera biziko seihilekoa izan da **Handizkako Bankaren** dibisioan

Kutxabankek 1.319 milioi euro onartu ditu finantzaketa jasangarrian, % 8,5 gehiago

- **Trantsizio energetikoa sustatzen duten enpresa- eta korporazio-proiektuek 763 milioiko maileguak jaso zituzten, % 23 gehiago**
- **Hipoteka-ekoizpen berri guztiaren % 30 jasangarria izan da, 541 milioi bideratu baitira energetikoki eraginkorrak diren etxebizitzak erostera**

2023ko abuztuaren 21ean. Banka jasangarria Kutxabanken apustu estrategikoetako bat bihurtu da lehen seihilekoan. Hori adierazten du antolaketa-egitura berriaren barruan **Jasangarritasun Zuzendaritza** berria sortzeak eta **Finantzaketa Jasangarriko Esparrua** onartzeak, horren helburua negozio-ildo hori bultzatzea baita.

Konpromiso horrekin bat etorritik, Finantza Taldeak, jasangarritasun-irizpideekin, **1.319 milioi euro baino gehiago kudeatu ditu finantzaketa jasangarrian**, hau da, % 8,5eko hazkundera, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta.

Finantzaketa-mota honetako dibisio indartsuenetako bat Kutxabanken **Handizkako Banka** izan da, bereziki energia berriztagarriak sortzeko eta txertatzeko **enpresa-proiektuetara** bideratutako kredituarekin, mugikortasun jasangarriaren aldeko apustua egiten duten jarduerekin edo etxebizitza sozial, babestu eta energetikoki eraginkorrak sustatzen dituztenekin.

Horren haritik, enpresa eta erakundeetan espezializatutako dibisioek **763,4 milioi euro** baino gehiagoko eragiketak onartu dituzte, guztiak ekonomia berde eta jasangarriaren barruan sartzen direnak. Horrela, aurreko urtean denboraldi berean egindako formalizazioak baino **% 23 gehiago** izan dira.

Nabarmentzekoa da jasangarritasun-aldagaiak erreferentziatzen hartu dituzten eragiketen zenbatekoa; izan ere, finantzaketaren baldintza jakin batzuk ingurumen- edo gizarte-arloko helburuen bilakaerarekin eta lorpenarekin lotzen dira. Eragiketa horien kopuru osoa **400,4 milioi eurokoa** izan da, eta horiekin Kutxabankekin, konpainia handien finantza-egitura indartzen laguntzeaz gain, karbono gutxiko ekonomiarako eta negozio-eredu jasangarriarako beraien trantsizioa babesten du, finantzaketan ESG irizpideak txertatzeari esker.

Txikizkako Banka-estrategian, Kutxabankek etxebizitzaren erosketak finantzatzeko, etxeak eraberritzeko edo ibilgailu eta etxetresna elektriko ekoeraginkorrak erosteko produktuak merkaturatzeko apustua indartzen jarraitu du.

Finantzaketa jasagarri horren zati handi bat Bankuko bezero partikularrek **energetikoki eraginkorrak diren etxebizitzak** erosteko erabili da, **Hipoteka Berdea** delakoaren bidez. Mailegu horrek finantzaketa-baldintza bereziak eskaintzen dizkie energia-ziurtagiri handienak dituzten higieziei, bai eta **'Aseguru Berdea'**ren bidezko babesaren ere, poliza berrien kopurua **% 3,3** hazi delarik.

Ekainaren amaierara arte guztira **541 milioi** euroko balioa duten eragiketak sinatu dira hipoteka berdeetan. Azpimarratzekoa da, gainera, hipoteka berri **guztien % 30,7** horrelako maileguetan sartu dela, aurreko urtean baino ehuneko hiru puntu gehiago.

Segmentu 'berde'an onartutako **kontsumorako maileguen** kopuruari dagokionez, **15,1 milioi** eurora iritsi da, **2022an baino hiru aldiz gehiago ia. Isolamendu- eta klimatizazio**-sistemen bidez energia-eraginkortasuna hobetu nahi duten etxeetara bideratu da finantzaketa, edo finantzaketa-eraztasunak eman dira **automobil elektrikoak, hibridoak edo erregai alternatiboan** bidez higiarazitako ibilgailuak erosteko. Halaber, partikularren aldetik eskari handiagoa izan da **eguzki-plakak** eta ibilgailu elektrikoak etxean **kargatzeko guneak instalatzeko**.

Kutxabanki buruz

Kutxabank finantza-erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulego-sarea, eta presentzia nabarmena Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesionalen bano gehiagok osatutako taldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sistemako banku kaudimendunena eta Europan arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.